

## **FUNTSEZKO ELKARTEAK**

Bizi Mendi proiektuaren arrakasta lortzeko ezinbestekoak dira aliantza estrategikoak. Gure aliantza nagusiak tokiko erakundeekin eta natur erreserbekin egiten ditugu, gure jarduerak espazio egokietan garatzeko. Horrez gain, baserritarrekin eta tokiko produktuen ekoizleekin lankidetzan aritzen gara, gure eskaintzan tokiko gastronomia eta produktuak integratzeko.

Era berean, turismo-agentziekin eta online sustapen-plataformekin lankidetzan aritzen gara gure zerbitzuak modu eraginkorrean promozionatzeko eta bisitarien artean ezagutzera emateko. Aliantza horiei esker, gure jarduerak eskuragarriagoak dira publiko zabal baterako eta gure ikusgarritasuna handitzen dugu.

Azkenik, ingurumen-erakundeekin elkarlanean jarduten dugu naturaren kontserbazioa indartzeko eta biodibertsitatea babesteko ekimenak garatzeko. Lankidetzak hauek gure balio nagusienetako bat indartzen dute: ingurumenarekiko errespetua eta jasangarritasunaren aldeko konpromisoa. Aliantza sendo hauei esker, Bizi Mendiren helburuak modu integralean garatzeko aukera dugu, inguruko komunitateari eta naturari onura ekarriz.